



OINEZKOEN EGUNAK

Herritarrei inkesta



Hiriguneei aplikatzen zaizkien garapen-politikek biztanle guztien bizi-kalitatea hobetzea izan behar dute helburu. Baieztapen horren begi-bistakoa dirudi, baina gakoa ekimen iraunkorrekin lortzea da, hau da, sozialki, ekonomikoki eta ingurumenaren aldetik orekatuak diren ekimenekin.

1. EKIMENAREN SORRERA

Horren guztiaren adibide garbia OINEZKOEN EGUNAKen kasua da. Ekimen hori aspalditik zegoen tokiko erakundearen asmoetan, baina ez zen gauzatu COVID 19aren egungo krisialdi arte. Zehazki, maiatzaren 15ean, Kale Nagusiaren zati bat itxi zen, Alarma Egoeraren deseskaladaren lehen fasean, oinezkoei lehentasuna eman eta aldi berean tabernariei terrazak jartzeko leku aproposagoa eskaintzeko.

Lehen itxialdi honen ondoren, OINEZKOEN EGUNAK izendatutako ekimen honen balorazio egin zuen Udalak eta ostalari eta merkatarien aldetik harrera ona izan zuenez, udalaren aldetik bide itxiera luzatzea erabaki zen.

Itxieraren ezauzgarriak:

Ostiraletan arratsaldeko 17:00etan hasi eta igandean 23:00ak artekoa da, Ubitarte etxetik Okindegi parerako ibilbidea itxita mantenduz autoentzat. Bestalde, Xume tabernaren parean, **ostegunean hasita, errail bat itxita** egongo da, baita astegunetan ere.

Aldaketa hauek direla eta, **autobusaren geralekua Kale Nagusia eta Zigor auzoaren arteko bidegurutzean izango da asteburuetan.**



Egoera honek, Ugarkaondo etxe parean trafiko arazoak sortu zituen, Frontoi paretik Zigor auzora pasatzea debekatua egon arren, auto asko izan direlako bertatik pasa direnak. Uztailaren 17tik aurrera, Oinezkoen egunaken ekimenaren ordutegiarekin bat eginez, semaforoz erregulatzea erabaki zen bide trafikoa.

Udalak argitaratutako oharrean adierazten zen bezala, irailean zehar, Oinezkoen Eguna ekimenaren ebaluaziorako partaidetza prozesua abian jarriko zen.

2. PARTAIDETZA PROZESUA

Irailaren 15etik 23ra bitartean burutu da partaidetza prozesua, 2020 urteko Mugikortasunaren Europako Astearekin bat eginez.

Partaidetza atalaren helburua herritarrei eta gizarte-eragileei galdetegi bat pasatzea izan da Oinezkoen egunaken inguruan, gizarte-ekonomia- eta ingurumen-ikuspegitik, Tokiko Agenda 21en eta Euskadi Lagunkoiaaren esparruan behin betiko erabakia hartu ahal izateko, 2030 Agendara proiektatuta. “Zer Idiazabal nahi dugu etorkizunerako?” izango da ikuspegia.

Inkestei dagokienez, erabilitako metodologiak, %95eko konfiantza maila lortzeko beharrezko lagina zehaztu da, 237 inkesta, 3 faktore nagusi kontutan hartuz: bizilekuaren kokapena (goiko auzoa, beheko auzoa, edo landa eremua), elkarriketatutakoen adina eta generoa.

Ondorengo izan da inkestetarako jarraitu den laginaren ezaugarriak:

Urteak	11-18	♀♂	19-30	♀♂	31-60	♀♂	61-80	♀♂	+81	♀♂	
Kopuru	26		26		109		55		21		237
Beheko Auzoa	15	7♀	15	7♀	63	30♀	32	16♀	12	7♀	
		8♂		8♂		33♂		16♂		5♂	
Goiko Auzoa	11	5♀	11	5♀	46	22♀	23	12♀	9	5♀	
		6♂		6♂		24♂		11♂		4♂	

*Oharra: Landa eremua goiko eta beheko auzoetan banatu da, kokapenaren arabera.

Inkestak bi bide ezberdinetatik egin dira. Idiazabalgo Udalak herritarrekin duen WhatsApp taldearen bitartez eta bi hezitzaileek kalean herritarrei egindako inkesta bidez.

Beste aldetik, foro ireki bat ere planteatu da herriko eragile ezberdinekin, beraien iritzia jakiteko. Fororako deialdia egiteaz udala arduratu da eta Artelatz-eko hezitzaileak bilerako dinamika aurrera eraman dute (ez da zuzenean inkesta bete, talde dinamika bidez, itxiera alternatiba ezberdinen inguruko aldeko zein kontrako ikuspegiak aipatu dira) . Foro Irekia irailaren 23an burutu zen, Gurasoen Elkartean arratsaldeko 15:30etatik 17:00 bitarte.

3. INKESTA

Inkestak osatzeko erabili den plataforma Google Form izan da, baliabide honek inkesta modu errazean osatu, inkesta bidali eta datuak tratatzeko aukera ematen baitu.

Erabilitako metodologiak ez du baimentzen jakitea zenbat inkesta bete diren whatsapp bidez eta zenbat hezitzaile bidez, baino azpimarratzekoa da herritarrek izan duten inplikazioa, datu bat esate aldera, kalera irten aurretik, 60 inkestatik gora zeuden beteta. Nahiz eta denak erabilgarriak ez izan, eskertzekoa da herritarrek adierazitako interesa.

Herritar bakoitzari, udal ordezkariak eta Artelatz enpresak adostutako galdetegia egin zaie. Zenbait kasutan herritarrei baieztapen bat eman zaie eta haien 0tik 10era beraien adostasun/desadostasun maila adierazi behar zuten (0 erabat desados eta 10 guztiz ados adierazirik). Beste zenbait kasutan galderak erantzun itxiak izan ditu. Jarraian agertzen direnak dira herritarrei egindako galderak:

1. Oinezkoen egunak, tokiko merkataritza eta ostalaritza sustatzen duen neurria da. (0tik 10era baloratu)
2. Oinezkoen egunak jarri denetik, oinez atera naiz kalera (0tik 10era baloratu)
3. Oinezkoen egunak abantaila gehiago dakartza deserosotasunak baino (0tik 10era baloratu)
4. Oinezkoen egunak orokorrean ekimen onuragarri eta sustatzailea da herriarentzat (0tik 10era baloratu)
5. Oinezkoen egunak harira moztutako espazioa:
 - Dagoen bezala mantenduko nuke
 - Txikiagoa egingo nuke
 - Handitu egingo nuke
6. Oinezkoen egunak, herritarren segurtasuna areagotzen du (0tik 10era baloratu)
7. Oinezkoen egunak ekimenaren etorkizunari dagokionez, nire lehentasuna da:
 - Azken aste hauetan bezala jarrai dezala, semaforoekin (kalea itxiz, asteburuetan soilik)
 - Errepidea erabat ez ixtea eta errei bakarria okupatzea, trafikoa semaforo batekin erregulatuz.
 - Eremu hori behin betikoz, oinezkoentzat jartzea.
 - Aurreko egoerara itzultzea (errepidea ez okupatzea eta erabat irekitzea)
8. 7. galderan lehen aukera hautatu bada soilik erantzun. Oinezkoen egunak ekimenaren inguruan proposena ondorengo iruditzen zait:

OINEZKOEN EGUNAK	Urteko asteburu guztietan mantentzea	Apirila eta urria arteko asteburuetan soilik ezartzea
Ostegunetik igandera ixtea		
Orain bezala jarraitzea, ostiraletik igandera ixtea		
Larunbata eta igandea ixtea soilik		

9.- Iradokizunak.

4. ERAGILEEKIN BILERA

Udalak, eragileen partehartzea ere ezinbestekotzat jo du partaidetza prozesu honetan. Hori horrela, udalak, alor ezberdinetako eragileei foroan parte hartzeko luzapena egin die. Eragileen bilera, Irailaren 23an burutu zen, arratsaldeko 15:30etan Guraso Elkartean. Herriko eragileez gain, herrian zehar foroa izango zela jakinarazi zen eta bi leku utzi ziren libre norbaitek interes berezia izanez gero, bertan parte hartzeko aukera izateko.

Ondoren zehazten diren eragileak izan dira forora deituak:

- Ostalari
- Merkatari
- Landa eremuko ordezkariak
- Etxebizitza komunitateetako lehendakariak
- Herriko eragile ezberdinak
- Herritarrak.

Eragileen hautaz eta deialdiaz Idiazabalgo Udala arduratu da eta Artelatz Ingurumen Zerbitzuak enpresak taldeak dinamizatzeko teknikak erabili ditu bilera aurrera eramateko.

Bertaratutakoei, alkateak ongi etorria egin ostean, alde egin zuen eta proiektuaren ardura izan duten eta kalean inkestak egin dituzten Artelatzeko hezitzaileak hartu dute hitza. Aurkezpen bat erabiliz, foroaren zergatia, funtzionamendua eta helburua azaldu ziren.





Ondoren, inkestan planteatzen ziren 4 eszenatoki ezberdinak azaldu zitzaizkien eta partehartzaileak 3 taldetan banatuz, talde bakoitzak eszenatoki 1 edo 2 aztertu behar zituen (taldeko kideei egokienak iruditzen zitzaizkienak) eta hauen inguruko alde positiboak eta negatiboak idatzi behar zituzten.



Ondoren eta talde eragile guztiek denen erantzunak entzuteko eta komentatzeko asmoz, taldetxoak dinamizatzeaz arduratu ziren, herriko berdintasun teknikaria eta Artelatzekeo 2 hezitzaileak ondorioak komentatu zituzten ahoz gora.

5. EMAITZAK

5.1.- Inkesten emaitzak

Hasierako proiektuan 237 inkesta aurreikusita zeuden baino arazo bat izan da 80 urtetatik gaineko partaide kopuruan. Inkesta 21 pertsoneri egitea aurreikusita egon arren, egoerak hala eraginda (koronabirusak eragindako egoera, kutsatzeko arriskua, arrisku taldea izatea) adin horretako 11 pertsona baino ezin izan dira elkarrizketatu (aurreikusitakoen % 52). Udalari topatutako ezintasuna azaldu zaio eta lortutako 228 inkestekin aurrera jarraitzea adostu da.

Hauek dira inkestetatik lortutako datuak:

Oharra: Balorazio baieztapenak planteatu direnean, erantzunak mailakatu egin dira, ondorengo 5 taldeetan:

0-2 balorazioak: Erabat desados






3-4 balorazioak: Desados

5-6 balorazioak: Erantzun neutroa


7-8 balorazioak: Ados

9-10 balorazioak: Guztiz ados.

Taldekatze hau kolorez ere identifikatu nahi izan da grafikoak identifikatzeko garaian ahalik eta bisualenak izateko. Hori horrela, ondorengo grafikoetan erabiltzen diren koloreak lerro berdina jarraitzen dute, emaitzaren identifikazio lana errazte asmotan.


	ERABAT DESADOS
	DESADOS
	ERANTZUN NEUTROA
	ADOS
	ERABAT ADOS

1.- OINEZKOEN EGUNAK, tokiko merkataritza eta ostalaritza sustatzen duen neurria da.




Inkestatutako pertsonen artean, nabarmena da jendea ados dagoela baieztapenarekin, %75ek 7tik gorako balorazioa eman diolarik.

2.- OINEZKOEN EGUNAK jarri denetik, oinez atera naiz kalera.




Jendeari galdera hau egiteko garaian, gehienen erantzuna negatiboa izan da, % 59ak, erdiak baino gehiago komentatzen du, Oinezkoen egunak martxan jarri zenetik ez dela gehiago ateratzen oinez, ez duela izan inolako eraginik bere mugikortasun motan, nahiz oinezkoa nahiz kotxe bidezkoa izan. Inkestatutako pertsonen % 20ak adierazten du, kalea ixteko neurria martxan jarri zenetik gehiago ateratzen dela oinez.

3.- OINEZKOEN EGUNAK abantaila gehiago dakartza deserosotasunak baino.




Inkestatuen % 55ak abantaila gehiago ikusten ditu deserosotasunak baino. Deserosotasunak identifikatzeko garaian, hauek aipatzen dituzte herritarrak: Herrian zehar kotxez ibiltzeko garaian, bide alternatibo eskasa, autobia erabili behar edo uztailetik aurrera martxan jarri zuten semaforoa. Hortaz gain, garaje batzuetako arduradunek, beraien kezka azaldu dute ez dutelako ikusten norantz doazen kotxeak eta beraiek ez dakitelako norantz atera behar duten. Mugikortasun arazo hori deserosotasun gisa baloratu dute.

4.- OINEZKOEN EGUNAK orokorrean ekimen onuragarria eta sustatzailea da herriarentzat.



Inkestatutako biztanleen % 67ak ekimen onuragarria dela uste du herriarentzat. Nahiz eta itxi den eremua herriaren zonalde batean egon, hau da, herriaren mutur bat izan, biztanleak ontzat jo dute ekimena orohar.


5.- OINEZKOEN EGUNAKen harira moztutako espazioa:



Inkestatutako biztanleen %59ak moztutako espazioa bere horretan mantenduko luke. Gainerako %41aren erantzuna bi aukeren artean berdin-berdin banatzen da, %20ak txikiagoa nahiko luke eta beste %21ak handitzea nahiko lukete, eliz pareraino, bereziki,


herriko plaza eta Txomenareneko parkeko pasabidea oinezko bihurtzea eskatzen dute azken hauek.

6.- OINEZKOEN EGUNAK, herritarren segurtasuna areagotzen du



Inkestatuko herritarren %66a, seguru sentitzen da herrian, eta are seguruago kalea hasi zirenetik maiatzean. Bakar batzuk adierazi dute zenbaiti asko kostatzen zaiela kotxez mantso ibiltzea herrian baino hori gehiago errespetu kontua dela. Kalea ixteak herritarren segurtasun sentsazioa areagotu du.


7.- OINEZKOEN EGUNAK ekimenaren etorkizunari dagokionez, nire lehentasuna da:



Inkestatuak izan diren herritarren %45ak maiatzetik hona hartutako neurriarekin berdin jarraitzeko eskatzen dute, gainerako %55ak berriz, beste 3 aukeren artean proportzio berdinetan banatzen dira:

- %18ak, aurreko egoerara itzultzea eskatzen du, 2 erreietara;
- %19ak, momentu honetan ostirala arratsaldetik igande gauera ixten den eremu hori, behin betikoz oinezko eremu bihurtze eskatzen du
- eta gainerako %18ak, astelehenetik igandera erreil bat autoentzat libre uztea.

Azken aste hauetan bezala jarrai dezala erantzun dutenei, bigarren galdera bat planteatu zaie. Noiztik nora itxiko zenuke? Asteko egunak kontutan edukita eta urtaroak. Hauek izan dira jasotako erantzunak:



Asteko egunei dagokienez, gehiengoak ostirala arratsaldetik igande gauera ixtea erabakitzen du eta ixte hau urte guztiko asteburu guztietan egin dadila eskatu, gehiengoaren justifikazioa ohitura bat bihurtzea komeni dela da, herritarren mugikortasun moduak pixkanaka-pixkanaka aldatzen joateko.

5.2.- Foro irekiko emaitzak


4 eszenatoki planteatu zitzaizkien foroan parte hartu zuten eragileei.



A aukera (%50 oinezkoak eta %50 tabernen terrazak – asteko egun guztietan – Erabat oinezkoa):

- **Alderdi positiboak:** (ez da ezer komentatzen)
- **Alderdi negatiboak:** Egoera ideal bezala ikusten da, baina autoentzako alternatiba egokirik ez da ikusten. Autobusaren arazoa ere larria da, herri sarreraraino baino ez baita iristen Oinezkoen Eguna martxan dagoenean.


Aldeko diren eragileek eremua handitzea eskatzen dute



B aukera (Oinezkoen egunak – gaur egungo errealitate)


- **Alderdi positiboak:** herrian giro gehiago sumatzen da eta ohiturak gauza txikiak aldatuz sortzen dira, beraz, egoera hau mantentzea eskatzen dute. Garajeetako pasoa beti irekia mantentzea.
- **Alderdi negatiboak:** Arrisku handia ikusten da errepideko karril bakar hori partekatzeko garaian. Semaforoak epe laburreko irtenbideak dira, zerbait sakonago eta egokiagoa pentsatu behar da etorkizun baterako. Zigor kaleko 18-20 garajeetako sarrera-irteerekin arazoak ikusten dira, semaforoa soilik ez da nahikoa. Bide alternatiboak arriskua kale nagusitik atera eta inguruko kaleetara pasa du, Zigor kalera bereziki.

Asteburuetan noraino ixtea da zalantza. Eta ikusten den aukera bat da Beasaingo Kale Nagusian egiten duten antzeko zerbait egitea ere, baimenduak soilik izatea sartzeko aukera eta hauek abiadura maximo bat izatea.



C aukera (Errei bakarria irekia - %50 kotxeentzat eta %50a terrazentzat asteko egun guztietan)

- **Alderdi positiboak:** Semaforoa jarriz gero kale hasieran eta bukaeran irtenbide egokia izan daiteke. Baldintza ezinbestekoa da semaforoa.
- **Alderdi negatiboak:** Kalea ez da segurua. Herritarren segurtasuna ez da bermatzen. Oso ondo mugatua eta seinaleztatua egon behar dute karrilek, arriskua ekiditeko.




D aukera (Bi erreiak irekita, aurreko egoerara itzuli)

- **Alderdi positiboak:** (ez da ezer komentatzen)
- **Alderdi negatiboak:** Tabernariak ez lukete lekurik bere terrazak zabaltzeko, bereziki Xume tabernak. Alternatiba izan daiteke, Xume ondoan dauden edukiontziak mugitzea eta Xumeri, Xaloaren tankerara, hor kokatzea terraza.

Taldetako batek 5. alternatiba bat aurkeztu zuen:

Astegunetan bi erreiak irekita mantentzea eta asteburuetan errai bakarra.



ONDORIOAK:

Eragileen bileran, A eta D aukerak ez dira planteatzen diren aukerak izan. Parte hartzaileek aukeratutako bi eszenatokiak B eta C egoerak izan dira. Ondo ikusten da asteburuetan ixtea baino bide alternatiboak garrantzia du, orain arte planteatutakoak hutsuneak dituela antzeman da eta hobetu beharko litzake.

Partehartzaileak ulertzen dute COVID19ak eragindako egoera baten aurreko jarduerak bat izan dela OINEZKOEN EGUNAKK sortzea baino etorkizun batean, beste modu bateko azterketa eskatzen dute. Plan Orokor sakonago bat eskatzen dute Idiazabalentzat.

Kale nagusia delako herria zeharkatzen duen bide bakarra eta eskasa ikusten da. Alternatiba kale paralelo bat sortzea litzake egokiena. Garai batean planteatu zen kale paralelo bat Txomenarenan bukatzen zena, (hori bertan behera geratu zen) baino beste aldean, Zigor kalean, Pizina atzetik elizara jaisteko alternatiba aztertzea eskatzen da.

Bileran zehar komentatu den beste faktore garrantzitsu bat autobusa izan da. Honen inguruan, ikerketa sakonago bat eskatzen dute, erabiltzaile kopurua... Era berean, gaur egun Zigor kaletik desbideratzen den trafikoaren azterketa egitea ere eskatzen den, arazoaren bolumen erreala zein den jakiteko.

Foro Irekian, nahiz eta gaiarekin erlazioa ez-zuzena izan, zonalde estali bat eskatu da, euria egiten duen egunetan umeak egoteko aukera izateko, esaterako, futbito zelaia estaltzea...

6. ARTELATZEN BALORAZIOA

2020ko Mugikortasun Europako Astearen harira burutu den kanpaina izan da. Udalak horrela adierazita, egun, Idiazabalen apenas egin da partaidetza prozesurik eta aipatu behar dugu, udalaren laguntza ezinbestekoa izan dela kanpainaren garapenean eta herritarrengan izan duen harrera, ezin hobea.

Kalean inkestak egiteko garaian hezitzaileek izandako harrera oso ona izan da eta talde eragilean bilera ere 60 minututakoa aurreikusita egon arren, 90 minutukoa izan zen, partehartzaile guztiek bere iritzia eman nahi zuten.

Oinezko Egunak ekimena behar batek sortutako ekimena izan da eta orain Idiazabalgo Udalarari dagokio, ekimen hau denboran mantenduko duen edo ez definitzea eta mantentzekotan zein neurri hartuko dituen definitzea.

Dokumentu honetan herritarren iritzia islatu da, hizkuntz eskubideak ere mantenduz. Bestetik aipatu nahiko genuke ere, zenbait jendek agertu duen desadostasuna inkestan eskatzen ziren hainbat datuekin: helbidea, telefonoa.... Inkestak anonimoak izan beharko lukeela aldarrikatzen zuten.

Bertan dagoen informazioak udalak erabilgarri izango delakoan dago Artelatz Ingurugiro Zerbitzuak S.L.